

5. Arazoak konpontzea

5.3. Teknologia digitala sormenez erabiltzea:

5.3.1. Tresna berritzaileak

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

Teknologia digitala
sormenez erabiltzea

Tresna berritzaileak




CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUAK

Jarduera hau amaitzean, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



AURKIBIDEA

- Sarrera (nola aurkitu tresnak)
- Aurkezpenak: Prezi
- Infografiak: Piktochart
- Testuak: Medium
- Mapa kontzeptualak: Cmap Tools
- Audioa: Audacity
- Kartografia: Google Maps
- Bideoa: Animaker
- Grafikoak: Tableau
- Datu kualitatiboen analisia: Atlas.ti

SARRERA

Gaur egun, esku-eskura ditugu hainbat eta hainbat tresna **berritzaile, erabilerrazak eta doakoak**. Halako tresnak oso lagungarriak izango zaizkigu modu **ezohiko, sortzaile eta eraginkor** batean zereginak betetzeko eta arazoak konpontzeko.

Modulu honetan, zure lanean erabiltzeko tresnen aukeraketa bat eskaintzen dizugu.



Apple ordenagailu, tableta edo telefonoen erabiltzaileok App Store-etan bilatu ditzakezue Mac OS edo iOSerako aplikazioak.



Android tableta edo telefonoen erabiltzaileok Google Play-n bilatu ditzakezue aplikazioak.



Linuxen erabiltzaileok Linuxen aplikazio-gordailuetan bilatu ditzakezue, hala nola Gnome-n.



Windowsen erabiltzaileok Microsoft Store-n bilatu ditzakezue.

Tresnak ez dira zure gailuan instalatzeko programak edo aplikazioak soilik. «Hodeian» dauden tresnak gero eta ohikoagoak dira.

Tresnak **Google bilaketa** bat eginez bilatu ditzakezu, helburua edo beharra adierazita: «**aurkezpen-tresnak**» edo «**mind maps tools**». Zure lanerako baliabide sorta bat eskainiko dizute.

AURKEZPENAK

Prezi

Honako programa hau gomendatzen dugu aurkezpenetarako:



Doakoa da. Txantilo, ikono, letra tipo eta irudi pila bat dauzka aukeran.

Haren erakargarritasun nagusia **zoom sistema** da, oso aurkezpen dinamikoak egiteko aukera ematen baitu.

Prezik **sare sozial** funtzioa ere betetzen du, gure aurkezpenak partekatzeko eta zabaltzeko aukera emanez. Jakina, bestek sorturiko aurkezpenak ere **aurkitu eta erabil** ditzakegu (baldin eta egileak onartzen badu).



Aurkezpenak egiteko **beste tresna** berritzaile batzuk: [Knovio](#) eta [Emaze](#).

INFOGRAFIAK

Piktochart

Hona hemen **infografia erakargarriak** egiteko tresna bat:




Infografia txundigarriak sortzeko **programa profesional** hori doan erabil daiteke, eta txantilo, ikono, letra tipo eta aukera sortzaile ugari jartzen dizkigu eskura.

Infografiak egiteko beste tresna berritzaile batzuk: Canva eta [Visme](#).

“ DERECHOS DE LA MUJER TRABAJADORA ”

¿Qué no podrías haber hecho si hubieras nacido mujer hace 60 años?
¿Qué le estaba prohibido a tu abuela?



TESTUAK

Medium

Testu bat argitaratzeko edo zabaltzeko toki bat behar baduzu, hona hemen tresna lagungarri bat:

Medium



Autoargitalpenetarako plataforma bat da, ediziorako eta testuen tratamendurako funtzioak dituena. Zabaltzeko eta argitaratzeko balio digu.

Testuak idazteko eta zabaltzeko beste tresna berritzaile batzuk: [WordPress](#) eta [Blogger](#).

El lado oscuro de la creatividad



nachogil [Follow](#)

Dec 10, 2018 · 10 min read

Valoramos mucho la creatividad, las encuestas en entornos de negocio y empresa destacan cada año la creatividad como una de las la cualidad más importante con las que debe contar una organización o un directivo.

La creatividad ha tenido una campaña de relaciones públicas tan potente durante los últimos años, que podría decirse, que como individuos u organizaciones la idolatramos, y eso sin que la mayor parte de las personas a las que preguntemos sepan ni siquiera definir exactamente a qué nos referimos con ese término.

Hemos idealizado tanto el vago concepto de creatividad, que nos resulta inimaginable, como individuos u organizaciones, que la creatividad tenga un lado oscuro, o que incluso pueda ser perjudicial para las organizaciones.




MAPA KONTZEPTUALAK

CmapTools

Mapa kontzeptualek **ikasten edo lanak prestatzen** laguntzen digute. Badira mapa kontzeptualak egiteko tresna ugari:



Programa honen bitartez, ia profesionalki lan egin dezakegu mapa kontzeptualekin. **Tresna ugari** ditu, eta webgunearen bitartez zabaldu ditzakegu gure sorkuntzak.



Mapa kontzeptualekin lan egiteko beste tresna batzuk: [MindManager](#) eta [XMind](#).




AUDIOA

Audacity

Audio-grabazio bat **prestatu, editatu, nahasi** edo beste edozer gauza egin behar badugu, honako tresna hau erabil dezakegu:



Audacityk audioa profesionalki tratatzeko aukera ematen du. **Plugin eta efektu** ugari dauzka, eta ez da zaila nola erabiltzen den ikastea.



Audioekin lan egiteko beste tresna berritzaile batzuk: [EXPStudio](#) eta [Ardour](#).

MAPAK

Google Maps

Mapeakin lan egiteko, tresna hau gomendatzen dizugu:



Google Mapsek hainbat eta hainbat **sormen-aukera** eskaintzen ditu, geolokalizazioaz eta mapez harago. **Ibilbideak** egin eta gorde daitezke, edo museoetako edo beste eraikin batzuetako **bisita birtualak**, edo distantziak neurtu, mapa historikoak ikusi, datuak seinalatu, eta abar.



Mapeakin lan egiteko beste tresna berritzaile batzuk: [HERE](#) [WeGo](#) eta [Waze](#).




ANIMAZIOA

Animaker

Animaziozko bideoak egiteko, gure tresna kutuna honako hau da:



Haren bitartez, **animazio** simple baina **sormenez beteak**, originalak eta pertsonalizatuak sor ditzakegu. Animazioa esparru konplexu bezain zirrargarria izanik, oso interesgarria da animazioak egiteko tresna bat izatea ikasteko denbora askorik behar izan gabe.




Animazioekin lan egiteko beste tresna berritzaile batzuk: [Powtoon](#) eta [Scratch](#).

GRAFIKOAK

Tableau Public

Grafikoak egiteko tresna berritzaile ugarien artean, honako hau gomendatzen dizuegu:



Doako erabilera eta biltegitratzea. **Infografia-funtzioak, animazioa eta kalkulu-orria** eskaintzen ditu, **datuak modu adierazgarri batean eta sormenez beterik aurkezteko.**



Grafikoekin lan egiteko beste tresna berritzaile batzuk: [DataWrapper](#) eta [Plotly](#).




DATU KUALITATIBOEN ANALISIA

Atlas.ti

Datu kualitatiboen analisirako, honako programa hau aukeratu dugu:



Gizarte-zientzietan eta humanitateetan, **datu kualitatiboen analisia** funtsezkoa da. Atlas.ti programak **tresna bikainak** eskaintzen ditu horretarako.



Grafikoekin lan egiteko beste tresna berritzaile batzuk: [MaxQDa](#) eta [Nvivo](#).





**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



Basque Culinary Center

Biblioteka

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

Enpresa Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

Goi Eskola Politeknikoa

Biblioteka

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu